

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Behin betiko onartzea “Sobrongo hornikuntza sistemako hoditeria berriztatzeko eraikuntza proiektua; tarte: A-4326 errepideko bidegurutzeta, Bergondako desbideratzea” proiektuak eragiten dituen ondasun eta eskubideak eta dei egitea proiektu horrek eragiten dituen eskubide eta ondasunen titularrei aldez aurreko aktak, okupazio akta eta balio justuaren akta egiteko**

Diputatuen Kontseiluak, irailaren 13an egindako bilkuran, 593/2016 Erabakia onartu zuen. Hona hemen erabaki hori hitzez hitz:

“Behin betiko onartzea “Sobrongo hornikuntza sistemako hoditeria berriztatzeko eraikuntza proiektua; tarte: A-4326 errepideko bidegurutzeta, Bergondako desbideratzea” proiektua gauzatzeko eragindako ondasun eta eskubideak. Kredituen esleipena.

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 31ko 345/2016 Erabakiaren bidez, behin betiko onartu zen proiektu hori eta, era berean, hasierako onarpena eman zitzaion proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen bana-banako zerrenda zehatzari; eta hura jendaurrean jartzeko epea ireki zen.

ALHAOn (71. zk., 2016ko ekainaren 22koa); Gaubea eta Lantarongo udaletako iragarki taulan, hau da, eragindako finkak dauden udaletako iragarki taulan, eta ekainaren 29ko ‘El Correo Español, el Pueblo Vasco’ eta ‘Diario de Noticias de Alava’ egunkarien aleetan argitaratutako iragarkien bidez egin zen jendaurrean jartzeko izapidea. Halaber, izapide hori proiektuak eragiten dituen finken jabeei jakinarazi zitzaien.

Zerrenda hori jendaurrean egon den epealdian ez da alegaziorik aurkeztu. Hortaz, proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda onartu behar da, eta okupatu beharrekoak direla adierazi, eta halaber, ekar ditzakeen aldi baterako okupazioak, zortasunak eta aldaketak onartu behar dira.

Adierazten da, halaber, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren lursailen okupazioa atzeraezina dela, edateko urez hornitzeko oinarritzeko zerbitzua kalitate eta kantitate egokian lehenbailehen eskaintzeak duen interes publikoa begi bistakoa baita. Horren harira gogorarazi behar da abenduaren 23ko 3376/1971 Dekretuak artikulua bakarra duela, zeinak xedatzen baitu herritarrak hornitzeko bideratutako ura edangarri bihurtzeko lanek premiazkoak jotzen direla abenduaren 16ko Nahitaezko desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako ondorioetarako. Horregatik guztiagatik, artikulua horretan araututako presazko prozeduraz izapidetzen da desjabetze espedientea.

Arabako Foru Aldundiak eskumena dauka proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gauzatzeko, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 31.2 a) eta 36. artikuluetan eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 30. artikuluan xedatutakoari jarraituz. Legegintzako errege dekretu horren bidez toki araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua onartu zen. Eskumen horiek betetzeko, Foru Aldundiak ahalmena izango du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzeko, halaxe xedatzen baitu 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan.

Erakunde honen barruan, desjabetze ondorioetarako onura publikokotzat jotzea berekin daramaten proiektuak eta desjabetzeak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onartzeko eskumena duen organoa Diputatuen Kontseilua da, abenduaren 18ko 52/1992 Foru

Arauk, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 8.26) artikuluan ezarritakoaren ondorioz.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak txostena egin du beharrezko kreditua dagoela esanez.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuen proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea "Sobrongo hornikuntza sistemako hoditeria berriztatzeko eraikuntza proiektua; tartea: A-4326 errepideko bidegurutzea, Bergondako desbideratzea" proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda (honekin batera doan eranskinean jaso da), eta haiek okupatu eta eskuratu beharra adieraztea, desjabetu eta aldi batean okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo iraungiarazteko.

Bigarrena. Nahitaezko desjabetzearen Legearen 52. artikuluan araututako presazko prozeduraz izapidetzea desjabetze espedientea.

Hirugarrena. 35.135,99 euro esleitzea eragindako ondasun eta eskubideen balio justua ordaintzeko Arabako Foru Aldundiaren 2016ko aurrekontuko gastu egoeraren orriko "1.60.2.07.62.00.600.00.01 Lursail eta Azpiegitura Hidraulikoak eskuratzea" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 60/105/724-16.1.16).

Laugarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen abenduaren 23ko 21/2015 Foru Arauk, Arabako Lurralde Historikoaren 2016rako aurrekontua gauzatzekoak, bere 16. artikuluan.

Bosgarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak I. eranskinean jasotzen diren finkei dagokien balio justuaren kopurua ordain dezala, Desjabetzapen Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori gorago aipatutako lerro eta xedapen erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epean".

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespina gertatu arte (Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen Legearen 116. eta 117. artikulua).

Halaber, aipatutako proiektuak eragindako eskubideen titularrei dei egiten zaie okupazioaren aurreko aktak eta, hala badagokio, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara.

Egintza hori 2016ko urriaren 5a eta 6a bitartean egingo da, 9:00etatik aurrera, Gaubeako Udalak (Uribarri Gaubea) eta Lantarongo udalak (Komunioi) dauzkaten lokaletan. Horren berri interesdun bakoitzari emango zaio, dagokion banakako zitazio zedularen bidez (Nahitaezko desjabetzearen Legearen 52-2 artikulua).

Ekintza horretara, interesdunak berak azaldu beharko dira, edo beraien izenean jarduteko behar bezala baimendutako pertsona bat, haien ordezkari moduan, beren titulartasunaren egiaztagiriak ekarri (eskritura publikoak zein pribatuak, Jabetza Erregistroko ziurtagiriak, eta

abar); gainera, egokia baderitzote, beren peritu, abokatu edo notario batek lagunduta agertu ahal izango dira, kostuak beren gain direla.

Halaber, eta Nahitaezko desjabetzearen Erregelamenduaren 56.2 artikuluan xedaturikoarekin bat etorriz, interesdunek nahiz argitaratutako zerrendatik kanpo utzi diren eskubide errealen nahiz interes ekonomikoen titularrek egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal izango dizkiote idatziz Arabako Foru Aldundiari (Probintzia plaza 4, 6. solairua, 01001 Gasteiz) okupazioaren aurreko aktak egiteko adierazi den egunera arte, baldin eta ukitutako ondasun eta eskubideak zerrendatzean okerrik egin bada eta horiek zuzentzeko bada.

Balio beza, orobat, argitalpen honek jakinarazitzat jo daitezen jakinarazpena egin ezin izan zaien pertsona eta erakunde guztiak, zein diren edo nora jakinarazi behar zitzaien jakiterik izan ez delako edota, jakinarazpena egiten saiatu arren, gauzatu ezin izan delako (azaroaren 26ko 30/1992 Legea, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena, 59.4 artikulua).

Lege oharra. Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, datu pertsonalak babestekoak, xedatutakoa betetzeko, Arabako Foru Aldundiak jakinarazten dizu iragarki honetan agertzen diren datu pertsonalak erakunde honek desjabetzeko espedienteak kudeatu eta tramitatzeko daukan Desjabetze espedienteak izeneko fitxategi mistoaren osagai direla. Datu horiek ez zai-zkie emango hirugarrenei, salbu eta legeak ezarritako kasuak badira tartean. Aipatutako lege organikoak datuetan sartzeko, datuak ezerezteko eta zuzentzeko eta haien aurka egiteko eskubideak aitortzen ditu; haiei buruz kontsulta edo azalpenen bat egin nahi baduzu, Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegora (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba) jo beharko duzu.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 14a

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria*  
**MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA**

SORRONKO KONKUNTZA SISTEMAKO HODITERIA BERRITZATZEKO ERKUNTZA PROIEKTUA, PARTE A.428 ERREPIDEKO BIDEGURUTZA, BERGONDIKO DEBERDITZA PROIEKTU CONSTRUCTIVO DE REGADION DE LA SIERRA DE LAS FUENTES DE LAS FUENTES, TRINCO, GRUPO CARRETERA-143 OPERACION BERGONDA.

FINKAREN ZK.	TITULARREN IZENA	KANTASITROKO DATUAK		UDALA	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	FRAGINDIAKO ONDASUNA		FRAGINDIAKO ZALEAK		EGUNA	ORDUA
		POLIGONO	LURZATA				BEHIN-BEHINA	FRAGINDIAKO ZALEAK	FRAGINDIAKO ZALEAK	FRAGINDIAKO ZALEAK		
Nº FINCA	NOMBRE DEL TITULAR	POLIGONO	PARELA	AYUNTAMIENTO	APROVECHAMIENTO	BIEN AFECTADO	DEFINITIVA	FRAGINDIAKO ZALEAK	FRAGINDIAKO ZALEAK	FRAGINDIAKO ZALEAK	DIA	HORA
10	M. ASUNCION NUÑO SALAZAR	13	918A	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO			1920	960	05/10/16	09:00	
11	M. ASUNCION NUÑO SALAZAR	13	917A	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO		7	324	155	05/10/16	09:00	
3	UNTA ADMINISTRATIVA DE BACHICABO VICENTE VARONA SALAZAR	13	948	GAUBEA / VALDEGOVIA	ETZE LARREREA ERALAN ATXISTOS		11	2505	1241	05/10/16	09:30	
5	J. ANDRES VARONA SALAZAR J. LUIS VARONA SALAZAR JAVIER VARONA SALAZAR	13	946	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO			986	483	05/10/16	10:00	
4	VICTORIA CORCUERA ORTIZ	13	947	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO		4	442	217	05/10/16	10:30	
1	ANGEL SALAZAR ARTIETA	13	847A	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO		9	104	54	05/10/16	11:00	
2	ANGEL SALAZAR ARTIETA ECHA AMAYA ARTIETA BARRIO	13	963	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO		7	2273	1130	05/10/16	11:30	
6	ANAMARIA LOPEZ CUENCA	13	945A	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO		7	518	252	05/10/16	12:00	
			945B					237	119			
8	TOMAS SUAZO IZAR DE LA FUENTE M. ISABEL SUAZO IZAR DE LA FUENTE	13	943	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO		7	289	138	05/10/16	12:30	
9	FLORENTINO ECHEVARRIA GUINEA	13	918C	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO		4	2854	1323	05/10/16	13:00	
7	JESUS ISMAEL LAZARO ARBERAS	13	944	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO			2323	1161	05/10/16	13:30	
12	ANGELA CORCUERA GUINEA	13	1153	GAUBEA / VALDEGOVIA	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO			647	324	05/10/16	14:00	
			1481	LANTARON	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO			34	16	06/10/16	09:30	
20	JUAN PABLO ANGULO GONZALEZ M. JOSEFA ANGULO GONZALEZ	2	1481	LANTARON	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO			751	375	06/10/16	10:00	
14	JESUS SALAZAR CASTRO M. ANA SALAZAR M. ANA SALAZAR M. ANA SALAZAR	2	1487	LANTARON	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO			1674	837	06/10/16	10:30	
15	EDUARDO FERNANDEZ DE PINEDO VALMASEDA JAVIER FERNANDEZ DE PINEDO GARCIA	2	1486A	LANTARON	LABORANTZARAKO LUR UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			605	302	06/10/16	11:00	
16	ROSA MARIA FERNANDEZ DE PINEDO BALMASEDA	2	1486A	LANTARON	LABORANTZARAKO LUR UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			462	231	06/10/16	11:00	
17	F. JAVIER MARTINEZ TAMAYO	2	1484	LANTARON	LABORANTZARAKO LEHORREKO LURRA / TIERRA DE LABOR SECANO		4	431	212	06/10/16	11:30	
18	JESUS YAGRETI GARRAZ M. ANGELES ARANAZ DIEZ	2	1483A	LANTARON	LABORANTZARAKO LUR UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			1783	891	06/10/16	12:00	
19	M. SOCORRO SALAZAR LUZURAGA	2	1482A	LANTARON	LABORANTZARAKO LUR UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO			2092	1047	06/10/16	12:30	
13	ANGELA CORCUERA GUINEA M. FELISYARTITU CORCUERA	2	1488	LANTARON	LABORANTZARAKO LUR UREZTATUA / TIERRA DE LABOR REGADIO		4	450	221	06/10/16	13:00	

Esp. Excmo. 2016/377